

## Euskal Haur Literatura: sostengu emozionala eta hizkuntz eredu berezia (Hitzaldi-lantegia)

Haurra jaio berria denean, kulunkatu egiten dugu negar egiten duenean, edota harekin, jolas giroan, komunikatu nahi dugunean. Kulunka horiekin batera, ahotsa ateratzen dugu modu erritmikoan, haurra sosegatzeko, gu lasaitzeko.

Senak erakusten dio aitari eta amari haurra kulunkatu eta bere ahotsa eskaintzen. Kultura guztietan gauza bera egiten du gizakiak, norberak bere hizkuntzan. Gizarte bakoitzak sortu ditu funtzio hau betetzeko literatur pieza txikiak: kantuak, hitz jolasak, poesia eta ipuinak.

Euskal gizarteak oso literatur aberatsa sortu du bere haurrekin aritzeko; mendez mende pieza txiki horiek pasa dituzte hizkuntza eta gaien galbahea eta eredu bilakatu dira euskal etxeetan. Horiek ezagutu eta transmititzeak garrantzia hartzen du hizkuntz baten berreskuratze prozesuan.

Tradizio gaurkotu batek erakutsiko digu gure haurrekin jolasten eta kantatzen eta kalitatezko une emozionalak eta intelektualak gure etxeetan sortzen.

### LANTEGIAREN GAI AK

---

- Ñ Euskal haur poesia eta sostengu emozionala.
- Ñ Euskal haur literatura gaiez gai, adinez adin
- Ñ Kanta dezagun, jolas egin dezagun (Bularretik Mintzora )
- Ñ Konta dezagun, amets egin dezagun (Sasi Guztien Gainetik)